

dugun azken helburua *Euskal Herria*, euskaldunez beterikako Herria, da.

Hortaz ene eritzia publikoki, jende asko entzule nuela, azaldu nuen Ustaritzen 1976-garrenean eginkako Udako Euskal Unibertsitatean, goizalderuntz auzkaka hasirik bukatu zen gau pasa famatu haretan kantaturikako bertso batean. Honela bukatzen zela gogoratzen naiz: *Gure Euskadi / Euskal Herria / bihurtzen ekin dezagun*. Apur bat geroxeago, eguna argiturik, Davant euskaltzainaren sarrera hitzaldiaren ondo-ko bazkarian antzeko zerbait kantatu nuen Maulen. Hemen argitaratzeko honako hau asmatu dut:

Zorionean euskal iturri
edan genduen mintzairak,
erdal mundua inguruz dugu
egin ahalez begira,
gogoz ta mamiz euskaldun gara
asko dugu tira bira,
gakizkion tink irauli arte
Euskadi Euskal Herrira.

EUSKAL ARTEAZ ETA ARTE HIZTEGIAZ*Iruñea, 1977 - VII - 29**J. San Martin*

Agur, entzuleok:

Hasteko, puntu batzuk argitu beharra dut. Aurten, Udako Euskal Unibertsitate honen antolatzaileei hitza eman nien Arte orokorrez eta bereziki herritar arteaz ikastaro bat eratzeko, U.E.U. ikastaroak abuztuko hilean izango ziren ustez. Baino uztalelean izateaz nere asmoak hutsean gelditu dira, hil honetan nere ogibidezko laneri erantzun beharrez. Beraz, guzioi ulermena eta barkamena eskatzen dizuet nere ezinagatik huts egin dizuedalako.

Ikastaroen harian sartzeko, hastapenetik honerat dakargun urratsez zenbait ohar agertuko dut:

I. Udako Euskal Unibertsitate hartan, 1973.urtean, arte orokorrez eman nituen hitzaldiak *Lur eta gizon, Euskal Herria* (1974) deritzan liburuau argitaratu ziren. Bertan ohartuko zeratenez, "Euskal Artea" esateaz, gure herriaren inguruan sortutako artegintzak ez ezik, kanpotik heldutakoak ere aztertzen ziren, bertako eskola edo lantegi garrantzizkoak izan direnekoak.

Arte nagusietan, Erdi-aroa geroztik Nazioarteko estiloak jarraitzen dira: Erromanikoa, Gotikoa, Pizkundea, Barrokoa, Neoklasikoa eta abar, Europako mendebalde guzian hedatu zirenak, estilo bakoitzaren sorrera toki edo inguru jakin bat izan bazen ere. Baino herri batean arte eskolak eta lantegiak indartsu nabari direnean, orduan hartzen dute lekuo berezitasuna, holako edo halako eskola edo lantegiko joera bereziak markatzentz direna. Berezitasun hauiek, gehienetan, herritar artearen influentziazkoak dira eta urengo maisu handienengandikakoak. Horregatik, nere lan hartan, eginak diren ikerketaren arabera, gure herrian nortasunez bertakotu ziren adiarazgarri izan daitezken aldi eta estiloak soil soilik markatu nituen. Adibidez, Barrokoa eta Neoklasikoa aipatu gabe utzi nituen, hauetan oraindik nahikoa estudio egin ez delako, baina orainagoko edo gure egunotako eskulturagintza sartzen nuen, historia aintzineko arte zaharrarekin batean gure geure nortasunik handiena nabari duelako.

II. U.E.U.-an, estiloak eta eskolak klasifikatzeko metodoaz mintzatu ginen, diapositibaz adiaraziz, eta mintegi eraz elkarritzetak eginaz. Orduañ, lanerako plangintza bat ere markatu genuen.

Uste dut aski argi utzi nuela Arte ikerketak gure herrian izan lezakeen garrantzia, bestelako agiri idatzien faltaz edo horien lagungarri historia bera ikertzeko, batez ere gizonaren bizikeraz eta ekonomiaren aldetik.

Honetarako etnologiaz anitz baliatu gara, baina ez hainbeste arte ikerketaz, guti baizik egin ez delako. Eta, bestelako agirien faltaz, argi bide anitz lortu genezake artea ikertzeaz. Esate baterako: gizonaren ekonomia nagusia ihiza-arrantza garaiari loturik zenekoak ditugu Harritarokoak. Itsasoa, ibai eta ibar menditsuen inguruak ziren ihiza eta arrantzarako tokirik egokienak, eta horrez gainera orduko giroa edo klima hain hotza izateaz harpeetako epeltasuna zuten bizileku eta harpeetan utzi zituzten lehen pinturak eta garai bereko tresneria osoa, nahikoa ongi ezagutzen ditugunak arkeologia ikerketeri esker. Trikuharri edo dolmenen garaia ordea, artzaingoaren inguruan ekonomia gailendu zenekoa dugu. Erdi-aroko ekonomiaren aberastasun nagusia laboraritza zenez, Nafarroa erdialdetik hegoaldera eta Arabako lurretan aurkituko ditugu hau egiztutako diguten agiriak, erromaniko eta gotiko monumentu handiekin. Baino Pizkundearekin, zientzia ikerketen aurrerapenarekin batean ola-zaharrak eta merkatalgoa indartu ziren, eta XVI. mende horretan Bizkai-Gipuzkoetako arte aberastasunak Nafarroa eta Arabako maila hartzen dute.

Gaingiroki kondizionamendu horiek markatzen digute gure artearen abiadura eta nondik norakoa.

Arrazoi horien ondorioz, lanerako plangintza hau markatu genuen: a) Estiloak eta Eskolak bereiztea; b) Estilo klasifikatza; d) Inbentariogintzarako arauak', Kuestionario gisa; e) Lanerako oinarritzko Bibliografia; f) Ermitak; g) Eliza nagusiak; h) Herriko etxe, baserri, jauregi eta dorre-etxe.

Hirugarren urtean ez genuen izan ikastaroak jarraitzerik. Euskararen alde hainbeste borroka egina nuenez, Franco-rena bezalako diktadura batean euskaltzaleok ere gure zergak ordaindu beharra izan genuen eta pasaporterik lortu ezinez gelditu nintzen. Orain, nere jakinduria tipian ere, hara nola aurkitzen naizen Salamanca-ko jakitun zahar haren antzeera, eta atzo esan nuenaren jarraipenez honako aurkezpen hau egitera nator:

Aurten, V. Udako Euskal Unibertsitate hontan, lehen urteeetan osatu genituen ikastaroeri gain begiratu bat eman nahi genion, herritar artea eta arte hiztegia aztertzeko.

Aurtengo asmoa zen, parte hartu nahi zuen nornahiri urtean zehar ikerketa jarraitzeko langintza gertatzea, U.E.U.-ko batzaldi hoiен ondotik ere elkarrekin har-emana izatea eratuz. Are gehiago, ikasleren batek bere tesigintzarako lana burutzea nahi bazuen ere ekintza hontaz balia zezan. Gai hauen inguruan lotuko zen plangintza: a) Barruti edo haran edo herri baten mugaturik Arte katalogatze orokorra; b) Herritar artearen parte berezi batzuei buruz lan egitea; d) Lan oso berezi batu buruz, zeramika, zura lanak, burdin lanak, eta abar; e) Eliza batu buruz lana egitea, parroki edo monumentu, edo Eliza bereziren batu buruz: San Miguel Aralarkoa, San Blai Maulekoa, San Prudentzio Armentiakoa, Ziotza, Itziar, Arrate, Estibaliz, eta abar.

Lan horietarako, nahi izanezkerro, historia eta etnografia ere lotu ditezke artearekin batean. Nornahik erraz burutzeko lana eta era berean gure estudioetarako premiagarría.

Ikerketa horien ondore bezala mugatu dezakegu, arestian agertu dugunez, bertako ekonomia mugimendua eta bertako eskola edo lantegien berezitasunak; baldin berezitasunik bada, ezagutzen laguntzeko.

Ikerketarako berriz, behar beharrezkoza zaigu gai bakoitzaren inkestarako kuestionario bat ere. Herritar arteaz, zenbait esku-lan eta arkitektura ikertzeko hor dugu J. M. Barandiaranek gertatutako "Cuestionario" (1) delakoa, baina zenbait puntutan gehitu beharrezkoza. Zeramikaren ikerketarako, esate baterako, eta adibidezat lur materia bera hartzetik eta ehotze lanetatik, ontziak eskuz moldatu eta labean egosi arteko prozesu guztia jasotzen duena. Herritar artea den esku-langintza hau oraindik egiten den Arabako Narbaxan edo Nafarroako Lizarran jasotzeko, edo urte asko ez dela bukatu zen hirietan, langintza hura egin zutenak oraindik bizi diren artean, Nafarroako Tafalla edo Irunderrin gertatzen den beza-la, adibidez.

Gehiago oraindik, arte ikerketa hauek euskaraz eramateko hain beharrezkoza zaigun tresna den Hiztegi bat osatze lana ere gure ardurapean hartu beharrean ikusten ginuen, eta honetarako, galderen kuestionarioarekin batean, hasteko, zortzirehunen bat fitxa biltzen dituen hiztegi bat ger-taturik nuen, arkitekturakoak eta beste, artearekin zer ikusirik duten hitzak sartuaz. Hiztegi hau, gaiok euskaraz erabiltzen diren honako bibliografia hontatik bildua dira:

- Altuna, J.: *Lehen Euskal Herria*. Oinati, 1975.
 Azkue, R. M.: *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao, 1905-1906.
 Barandiaran, J. M.: *Lehen euskal gizona*. Donostia, 1972.
 Barandiaran, J. M.: *Euskal etnia eta jatorria (Lur eta gizon, Euskal Herria liburuaren 67/86 orr.)*. Oinati, 1974.
 Euskaltzaindia: *Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia*. Donostia, 1975 (Eta EUSKERA, XX, 7/153 orr. Bilbo, 1975.)
 Kortadi, E.: *Artegintza, artista, gizartea*. Bilbo, 1974.
 Lekuona, M.: *Romanikoa Gipuzkoan ("Egan" aldizkaria, 1969, 115/120 orr.)*. Donostia.
 Mitxelena, L.: *Jurgi Oteitzak esan digu ("Egan" aldizkaria, 1969, 115/120 orr.)*. Donostia.
 San Martín, J.: *Euskal Artea (Lur eta gizon, Euskal Herria liburuaren 147/167 orr.)*. Oinati, 1974.
 Valverde, A. "Ayalde": *Ibar ixillean*. Donostia, 1970.

(1) J. M. Barandiarán, *Cuestionario para un estudio Etnográfico del Pueblo Vasco*. Ciencias Naturales Aranzadi. Donostia, 1963.

Guía para una encuesta etnográfica. "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra", n.º 20, p. 277. 1975.

Abategia, abadía.
Abside, ábside.
Abstrakto, abstracto.
Aburu, crítica, opinión.
Adiarazi, expresar.
Adiarazle, significante.
Adiarazpen, expresión.
Adiarazpide, señalación.
Adiera, nivel significativo.
Adimen, inteligencia.
Ageri, testimonio.
Agerkari, publicación.
Agerkari espezializatu, publicación especializada.
Aguaforte, aguafuerte.
Ahozko, oral.
Aintzina, antiguamente.
Aintzinako, de la antigüedad.
Aintzinalde, fachada.
Aintzinatasun, antigüedad.
Aintzinate, antigüedad.
Aintzinkari, anticuario.
Ajimez, ajimez.
Akademia, academia.
Akademizismoa, academicismo.
Akrilikoa, acrílico.
Akordiozko, convencional.
Akuarela, acuarela.
Alakaitz, mampostería.
Aldakuntza, aldaketa, variación.
Aldategi, barandilla.
Alde, cara.
Alderdi, parte.
Aldi, fase, tiempo.
Alegoria, alegoría.
Altzari, mueble.
Angelu, ángulo.
Abstrakto, abstracto.

Ametsezko ederra, belleza ideal.
Anatomia, anatomía.
Antze, arte, destreza.
Antze-lan, labor artística.
Antzeman, percibir.
Apain, ornamento, adorno.
Apaindura, ornamental.
Apaingailu, ornamento.
Apaingarri, ornamentación, adorno.
Apaingarri txanbelina, floritura.
Apaintze, ornamento, decoración.
Arabe artea, arte árabe.
Arabiar, árabe.
Arau, canon, norma.
Arautegi, código.
Arbotante, arbotante.
Argi, luz.
Arginabar, luz difusa.
Argitalpen, edición.
Argitasun, claridad.
Argitsu, luminoso.
Argizaiola, tabla para enrollar la cerilla para las ceremonias de difuntos.
Argizpiak, rayos.
Arkatz, lápiz.
Arkeologia, arqueología.
Arkibolta, arquívolta.
Arkitektura, arquitectura.
Arku, arco.
Arku biribil, arco de medio punto.
Arkupe, soportal.
Arkupuntadun, arco apuntado.
Arku zapal, arco rebajado.
Arma-harri, escudo.

Aro , época, edad, era.	Atarte , portal, vestíbulo, porche.
Arte, artegintza , arte.	Ataurre , antuzano, atrio.
Arte aintzindari , arte de vanguardia.	Ate , puerta.
Arte-arloa , cuestión artística, tarea artística.	Ateburru , dintel.
Arte berri , nuevo arte.	Aterpe , atrio.
Arte erabilkor , arte mobiliar.	Ateuztarri , marco de puerta.
Arte erantsia , arte aplicado.	Atlante , atlante.
Artegintza , labor artística.	Auriñak aldia , auriñaciense.
Arte grafikoak , artes gráficas.	Aurrerapen , progreso.
Arte historia , historia del arte.	Austriar , austriaco.
Arte kontrako , anti artístico.	Auzpara (para, paleta) , paleta.
Arte lana , obra de arte.	Azal , superficial.
Artelari , artista.	Azil aldía , aziliense.
Arte liberalak , artes liberales.	Aztarna , huella.
Arte mintzaira , lenguaje artístico.	Aztarnategi , yacimiento.
Arte moderno , arte moderno.	Aztarren , índice.
Arte nagusi , arte mayor.	Azterketa (ikerketa) , investigación.
Arte pobre , arte pobre.	Azti , mago.
Arte saila (arte arloa) , cuestión artística.	Aztigaiak , artes mágicas.
Artesanu , artesano.	Aztikeri , magia.
Arte tipia , arte menor.	Aztikeriazko , mágico.
Arte zuria , arte blanco.	
Art-nouveau , art-nouveau.	Bakun , sencillo.
Artista , artista.	Baliatze , valerse.
Arraska , rascador.	Balio , valor.
Arraspa , raspador.	Balkoi , balcón.
Arrazionalista , racionalista.	Balkoin-banda , barandilla de balcón.
Arre , gris.	Baloratze , valoración.
Asimetriko , asimétrico.	Baranda , balaustrada.
Askotariko , polivalente.	Barrata (pipol) , dovela.
Askotarikoa , múltiple.	Barrokoa , barroco.
Asmatu , inventar.	Basilika , basílica.
Atabe , umbral.	Batasun , unión.

Begiesmen , contemplación.	Burualde , ábside, testero.
Begizko , visión.	Burualdeko kapera , absidiolo, capilla absidial.
Begizte , visual.	Burutze , realización.
Behe-kultura , subcultura.	Buztin , arcilla.
Beltz , negro.	
Berde , verde.	
Berebiziko , extraordinario.	Dada , dadá.
Berezi , peculiar, especial.	Dadaismu , dadaísmo.
Beirin , vidrio.	Dadaista , dadaísta.
Berinadura , vidriera.	Danbor , flecha (en arquitectura.)
Berniz , barniz.	Dibujo , dibujo.
Berun , plomo.	Diseinu , diseño.
Berrizale , vanguardista.	Doitu , ajustar.
Beso , tornapunta.	Dorre, Torre , torre.
Bihurdura , curvatura.	Dorretxe (torre-etxe) , casa torre.
Bilduma , ensamblaje.	
Bilduma egin , colecionar.	Eboluzio , evolución.
Bildumena (argizaiola) , tabla para enrollar cerilla de ritos funerarios.	Eder , hermoso.
Birgina (Andra Mari) , virgen.	Eder-arteak , bellas artes.
Bisigotiku , visigótico.	Edergailu , adorno, aderezo, ornamento.
Bizansiar , bizantino.	Edergarri , adorno, ornamento, aderezo.
Bolumena , volumen.	Edermen , gustoso.
Bordoina , columna, poste.	Eder-mina , sentimiento artístico.
Bordoinarriburu , capitel.	Ederretsi , complacerse, gustar.
Bordoinarripeko , base de columna, basamento.	Edertasun , hermosura.
Borgoindar , borgoñés.	Edertu , hermosear.
Bozina-era , abocinado.	Ederzale , aficionado a cosas bellas.
Brontze , bronce.	Ederztatu , adornar.
Buhame , bohemio.	Egitura , estructura.
Burdina , hierro.	Egosi , cocer.
Burdinaje , armadura de hierro.	Egungo, (gaurko) , contemporáneo.
Burdin haroa , edad del hierro.	Ehun , lienzo, tela.
Burdinori , bronce.	
Burdinsare , reja.	
Bureztun , corona.	

Ehunezko oihal , tejido de hilo.	Errepikatze , repetición.
Eite , forma, aspecto.	Erretaula , retablo.
Elementu , elemento.	Erretratu , retrato.
Eliza , iglesia.	Erromaniko , románico.
Eliza , iglesia, templo.	Erromatar , romano.
Elizbular , (ábside), ábside.	Erromantiko , romántico.
Elkarbide (komunikabide) , medio de comunicación.	Erromantiko ondoko , postromántico.
Eltzegile , alfarero.	Esan nahiaren maila , nivel significativo.
Entzumena , oído, capacidad auditiva.	Esbaketa , espátula.
Eragipen , influencia.	Eskema , esquema.
Erabil gauzaki , objeto de uso.	Eskola , escuela.
Eraiki , edificar, construir.	Eskuaira , escuadra.
Eraikuntza , edificio, construcción.	Eskulangile , artesano, manobrero.
Erakusgarri , muestra.	Esku-langintza , artesanía.
Erakusketa , exposición.	Eskultura , escultura.
Eratxi , derribar.	Eskulturagile , escultor.
Eraztun , sortija.	Eskulturgintza , arte escultórico.
Erdi-Aro , Edad Media, medievo.	Esolak , vigas verticales.
Erdiko Paleolitos , paleolítico medio.	Epaiki-hortz , diente de sierra.
Eedu , modelo.	Espainiar , español.
Ernaltzera , clave del arco.	Espatula , espátula.
Errauts , ceniza.	Espazio , espacio.
Errealismo , realismo.	Espiral , espiral.
Ertz-bizi , arista.	Expresio , expresión.
Ertzapaindura , orla.	Expresionismo , expresionismo.
Errealitate , realismo.	Espresionista , expresionista.
Errealitate aburua , realismo crítico.	Estetika , estética.
Errealitate kritikoa , realismo crítico.	Estilo , estilo.
Errealitate berri , nuevo realismo, neorrealismo.	Estuko , estuco.
Errediza , mueble.	Etorkizuneko , futurista.
Errementari , herrero.	Etorria , inspiración.
	Etxarri , pared maestra.
	Etxe , casa.
	Etxebizkar , caballete.
	Etxegile , arquitecto.

Etxeaintzina , fachada.	Gisa (molde), estilo.
Etxeatze , fachada trasera.	Gizaldi, generación.
Euritmia , euritmia.	Goi paleolitos, paleolítico superior.
Euskarri , soporte, pedestal.	Gorputz, enbor , torso.
Ezagueria , testimonio, cono-	Gordailu , tesoro.
cimiento.	Gorri , rojo.
Ezaugarria , indicio, señal.	Gotiko , gótico.
Ezpaloi , embaldesado.	Gotiko pitxi (flamígero) , fla-
Ezteinu , estaño.	mígero.
Entzutezko , auditivo.	Grafika , gráfica.
 	Grafikoa , gráfico.
Fabrikatu , fabricar.	Grafismo , grafismo.
Flamendar , flamenco.	Greziar , griego.
Flamígero (gotiko pitxi) , fla-	Gris , gris.
mígero.	Gubia , gubia.
Fobismo (fauvisme) , fauvis-	Gubil , buril.
mo.	Gurutze , crucero.
Forma , forma.	Gustu , gusto.
Frantsez , francés.	
Freskoa , fresco.	Habe , viga.
Frogantza , experimentación,	Hagarri, (idulki) , pedestal.
prueba.	Haitzulo , cueva.
Frontoi , frontón, frontispicio.	Harbel , pizarra.
Funtzio , función.	Hare-harri , arenisca.
Funtzionalitate , funcionali-	Hargin , cantero.
dad.	Hargintza, (harlantza) , can-
 	tería.
Gaia , tema, asunto.	Habe-ukondo , can.
Gailur , cresta, crestería.	Habetarte , intercolumnio.
Gako , clave de arco.	Harkantoi , piedra angular.
Galda , fundición.	Harlandu , piedra sillar, pie-
Galeria , galería.	dra labrada.
Gaurko (egungo) , contempo-	Harlantza (hargintza) , can-
ráneo.	tería.
Gauza , objeto.	Harpe , cueva, caverna.
Gaztai , castaño.	Harpeko pintura , pintura ru-
Gaztelu , castillo, castro.	pestre.
Geometria , geometría.	Hartxabal , placa de
Geroaldizale , futurista.	piedra.
Giltzarri , clave.	Harresi , muralla.

Harrespil, (hespil) , cromlech.	Horma pintatua, pintura mural.
Harretxe , casa de piedra.	Hormako, mural.
Harri , piedra.	Hunkipen, emoción.
Harri-aroa , edad de la piedra.	Husgune, cavidad.
Harri-aro behea , paleolítico inferior.	Hutsarte, luz (entre apoyos, term. de arquitectura).
Harri-aro erdialdia , paleolítico medio.	Huts hutsik, vacío absoluto.
Harri-aro goia , paleolítico superior.	Hutsune, espacio.
Harripikatuak , piedras talladas.	Ideia, idea.
Harriteria , pedrería.	Idulki (hagarri), pedestal.
Harroin, (lehenarri) , piedra fundamental.	Iduri, imagen.
Hauskor , frágil.	Idurimen (irudimen), imaginación.
Hautatzaile , seleccionador.	Igarpen, profecía, vaticinio.
Hedadura , dimensión.	Igarri, acertar, adivinar.
Hedamen , extensión.	Igeki, lámina.
Hedatu , extender.	Igela, laminador.
Hegal , cornisa, alero.	Igeltsu, yeso.
Herri artea , arte popular.	Ijetzi, laminar.
Herrikoi , popularísimo.	Ijetzitua, laminado.
Hespil (harrespil) , cromlech.	Ikasketa, aprendizaje.
Hilarri , piedra funeraria, lápida, monumento funerario, estela.	Ikastaldi, clase.
Hildaskatu , grabar con surco.	Ikastaro, curso.
Hildo (hildori) , surco.	Ikatz, carbón.
Hildori (hildo) , surco.	Ikur, signo.
Hilerri , cementerio.	Ikus, ikusi, ver.
Hilobi, (Hobi) , tumba.	Ikusbegi, presencia.
Hiperrealismo , hiperrealismo.	Ikusbide, vista.
Hiri-antolaketa , urbanismo.	Ikusgarri, panorama.
Hirigintza , urbanización.	Ikusgune, punto de vista.
Hobi (Hilobi) , tumba.	Ikusgura, curioso, inclinado a ver.
Horma , pared, muro.	Ikuskari, espectáculo.
Horma nagusi , pared maestra.	Ikusketa, revisión.
	Ikuskizun, espectáculo.
	Ikusle, espectador.
	Ikusmen, visión.
	Ikuspegi (ikusbegi), vista, presencia.

Ikustatze , contemplación.	Jenio , genio.
Imajina , imagen, icono.	Joera , tendencia.
Inbutu , embudo.	Jokua , juego.
Inbutudun , abocinado.	
Informazio , información.	Kalitate , calidad.
Informalismo , informalismo.	Kalostre , claustro.
Ingude , yunque.	Kantoi , cantón, esquina.
Inguruneko artea , arte del entorno.	Kantoidun (poligonal) , poligonal.
Impresionismo , impresionismo.	Kantonarri , piedra esquinal.
Impresionismo ondoa , post-impresionismo.	Katuzilo , gatera.
Impresionista , impresionista.	Kolegiata , colegiata.
Inprimategi , impremería, imprenta.	Konzentriko , concéntrico.
Inprimatzale , impresor.	Kopia , copia.
Intuizio , intuición.	Kontzeptu , concepto.
Iragapen , transición.	Kopiatu , copiar.
Iragarki , anuncio.	Koru , coro.
Iragarri , anunciar, comunicar.	Koska , muesca.
Irakurketa , lectura.	Kriselu , lámpara.
Irarri , estampar.	Kaolin , caolin.
Irudi , figura.	Kapela (zapela) , capitel.
Iruditidun , figurativo.	Kare (galzin, gisu) , cal.
Irudigina , imaginero.	Kariatide , cariátide.
Irudikatu , imitar.	Kartoi , cartón.
Irudimen (irudipen) , imaginación.	Kartoifin , cartulina.
Irudizko artea , arte figurativo.	Karrape , soportal.
Italiar , italiano.	Katakunba , catacumba.
Itsas-urdin , azul marino.	Katedrala , catedral.
Itsatsi (erantsi, loterazi) , adherir.	Keinu marra , signo.
Itzulinguru , circunferencia.	Kelta , celta.
Izartegi sinboloak , símbolos astrológicos.	Kidekatu , clasificar.
	Kitsch , kitsch.
	Klase , clase.
	Klasiko , clásico.
	Komunikabide (elkarbide) , medio de comunicación.
	Konkreto , concreto.
	Kolore , color.
	Kolore argitsu , color luminoso.
Jauregi , palacio.	Kolore bizi , color vivo.

Koloregai , colorante.	Lan ireki , obra abierta.
Kolore laua , color plano.	Lantegi , taller.
Kolore lauso , color opaco.	Lan umatua , obra sazonada.
Kolore maila , tono de color.	Larruspe , galería de cueva.
Kolore soil , color puro.	Laranja , anaranjado.
Komertzial , comercial.	Lasa , viga sobre el portalón, dintel.
Komika , comics.	Latesi , empalizada.
Komunikazio , comunicación.	Lauburu (laburu) , swástica.
Konstruktibista , constructivista.	Lauki , cuadro, cuadrado.
Kontsumo gauzaki , objeto de consumo.	Lauki zuzen , rectángulo.
Kristo , Cristo.	Lehen , primario.
Kritika , crítica.	Lehenarri (harroin) , piedra fundamental.
Kromo , cromo.	Lehen gizona , hombre primitivo.
Kronologia , cronología.	Lehen historia , prehistoria.
Kuadro (lauki) , cuadro.	Lehen irudi , imagen primaria.
Kubismo , cubismo.	Lehen paleolitos , paleolítico inferior.
Kultura , cultura.	Lehiaketa , competición, concurso.
Kultura aurreratu , alta cultura.	Lehio-sare , celosia.
Kupula , cúpula.	Lerden , esbelto.
Kutxa , cista o cámara, arca.	Lerro , línea, línea horizontal.
Kutxatilla , urna, arqueta.	Lerrobila , línea circular.
Kutun , amuleto.	Leun , liso, suave.
Labar , pared de roca vertical y plana.	Leundu (txartatu) , bruñir.
Labarri , pared rocosa.	Leungai , alisador.
Labar-irudi , figura rupestre.	Leze , sima, cueva.
Labe , horno.	Liburu , libro.
Labekada , hornada.	Lits , matiz.
Laguntza , cooperación, colaboración.	Litx , franja.
Lana (obra) , obra.	Lizun , moho.
Lanabes (langai) , instrumento, útil.	Lizundu , enmohecer.
Landu , tallar, esculpir, ejacular, labrar, elaborar.	Loriu atarte , portalón.
Langai (lanabes) , instrumento, útil.	Luebaki , trinchera.
	Luma , pluma.
	Lurmaila , estrato terroso.
	Lurpe , subterráneo.

Lurrontzi, recipiente de barro, recipiente cerámico.

Madalen aldia, magdaleniense.

Margazki, pintura (Cuadro).

Maila, grada.

Maila, nivel.

Mailadi (eskala), escala.

Mailu, martillo, mazo.

Mainela, mainel, parteluz.

Maisu, maestro.

Mandatu, encargo.

Manierista, manierista.

Margo, pintura (materia).

Marka (sinadura), marca, signo.

Marmol, marmol.

Martxanta, marchante.

Marra, trazo, raya, linea vertical.

Marraizko, raspador.

Marrazki (dibujo), dibujo grabado.

Marrakatu, trazar, dibujar.

Marroi, marrón.

Marruskatu, embadurnar.

Mass-media, mass-media.

Materia, materia.

Material, material.

Menasta, metal.

Menasta garaia, Edad de los metales.

Mende, siglo.

Merkatari, marchante.

Mesolitos, mesolítico.

Metatu, almacenar.

Mihise, lienzo.

Mihiztadura, ensamble.

Mihiztatu, ensamblar.

Mirabe arte, artes serviles.

Moda, moda.

Modelatu, modelar.

Modernista, modernista.

Moldatu, moldear.

Moldatze, moldear.

Molde, molde.

Monumentu, monumento.

More, morado, violáceo.

Morfologia, morfología.

Mosaiko, mosaico.

Mozarabe, mozárabe.

Mudejar, mudéjar.

Mugimendu, movimiento.

Muin, núcleo.

Multzo, conjunto.

Murko-erro, relieve, línea en relieve.

Musa, musa.

Museo, museo.

Musikari, músico.

Musker, verde.

Mustier aldía, musturiense.

Mutur-mehar, puntiagudo.

Nabar, multicolor.

Nabardura, pardura.

Nabari, notorio.

Nabarigarri, notable.

Nabaritu, advertir, percibir, observar.

Nabarmen, notable, distinguido.

Nabartasun, color abigarrado.

Nabartu, pintar de diversos colores.

Nabarri (harbizi), mármol.

Nahasgai, ingrediente.

Nahasgarri, mezclable.

Nahasi, mezcla.

Naif, naif.	Paisaje, paisaje.
Narotasuna, fecundidad, abundancia.	Paleolitos (Harri-haroa), paleolítico.
Naslika, betún.	Paleta, paleta.
Neoklasiko, neoclásico.	Paper, papel.
Neolitos, neolítico.	Para, pala, paleta.
Neoplastiko, neoplástico.	Paraxka, paleta.
Neorrealismo, neorrealismo.	Pastel, pastel.
 	Pikailadura, esmalte.
Ñabar, matizado.	Pikaziri, punzón, taladro (del paleolítico).
Nabardura, matiz.	Pikortasun, granulosidad.
Ñabartu, matizar.	Pilare, pilar.
Nirñir, fulgor, resplandor, destello.	Pilare-buru, capitel.
 	Pintzel, pincel.
Obo, círculo.	Pintura, pintura.
Ofizio, oficio.	Pipol (barrata), dovela.
Ohiturazko, costumbrista.	Piramide, pirámide.
Ohizko, costumbrista.	Pisu, peso.
Ohol, tabla.	Pitxi, joya, objeto de adorno.
Oihal, paño.	Pitxitegia, bisutería, joyería.
Oinburu, base tradicional, arraigo.	Pizkunde, Renacimiento.
Oinetxe, casa solariega.	Plano, plano.
Okergune, curvatura.	Plastika, plástica.
Ola, fábrica.	Plastika artegintzak, artes plásticas.
Ontzi, recipiente, vasija.	Plastico, plástico.
Ontzigile, alfarero.	Poligonal (kantoidun), poligonal.
Op-art, op-art.	Poligono, polígono.
Orfiko, órfico.	Pompier artea, arte pompier.
Organizista, organicista.	Ponte, pila.
Ori, amarillo.	Pop (populu), pop.
Orio pintura, pintura al óleo.	Pop-art (herri arte), pop-art.
Orlegi, verde.	Postala, postal.
Oroi, ámbito, plano.	Postimpresionismo, postimpresionismo.
Oroi, planta.	Produktu, producto.
Oroitarri, monumento.	Publizitate, publicidad.
Orri, hoja.	Pundu (puntu), punto.
Orrialde, página.	Pusketa, residuo.
Osotasun, totalidad.	
Ostiko, puntal, contrafuerte.	

Sabai , techo, bóveda.	Surrealismo , surrealismo.
Sagrarioa , sagrario.	Sutegi , fragua.
Sailkatu (klasifikatu) , clasificar, encasillar.	
Salerosketa , compra-venta.	Taju , traza, porte.
Salketa , venta.	Tajura , trazado.
Salmenta , venta.	Tajutu , arreglar, ordenar.
Santugina , santero, imaginero.	Tankera , modo, semejanza.
Sarbide , galería de entrada.	Taxu (antze) , semejanza.
Sari , premio.	Teknika , técnica.
Sariketa , premio, concurso.	Teknika maila , nivel técnico.
Sastakai , taladro, taladrador (term. arqueológico).	Temple , temple.
Semiotika , semiótica.	Teoria , teoría.
Sentipen , sensibilidad.	Terrakota , terracota.
Serigrafia , serigrafía.	Tinkaturiko , hincado, enhiesto.
Sigilu , sello, marca.	Tinta , tinta.
Silueta , silueta.	Tolestura , pliegue.
Simetria , simetría.	Torre-etxe , casa torre.
Sinbolista , simbolista.	Trebe , hábil, diestro.
Sinbolu (ezaugarri) , símbolo.	Trebetasun , destreza, habilidad.
Sintetiko , sintético.	Tresna , instrumento, utensilio.
Sinu , signo.	Trikuharri , dolmen.
Sistema , sistema.	Trintxa , formón.
Soilauru , galería.	Troska , estalagmita.
Soineko , vestimenta, ropaje.	Troska-burruntzi , stalactita.
Solairu , pavimento.	
Solutre aldia , solutrense.	Ubel , cárdeno, amoratado.
Sorketa (sortzapen) , creación.	Ukondo , canecillo.
Sormena , creatividad.	Unibertsal , universal.
Sortu , crear.	Upategi , bodegón.
Sortzaile , creador.	Urdin , azul.
Sozial-pintura , pintura social.	Urdinarre , gris azulado.
Suharri , pedernal, sílex.	Urtu , fundir.
Suharrauts , caolín.	Urtze , fundición.
Suprematismo , suprematismo.	Urraide , cobre.
	Urrats , avance.
	Urre , oro.